

Eusko Jaurlaritzaren iruzur berria osagarriekin

Gaur, abenduak 20, iruzur berri bat burutu du Eusko Jaurlaritzak Unibertsitate publikoko irakasle eta ikertzaileen kontra. Urtebete beranduago eta atzera eraginik errekonozitu gabe hasiko baitu C mailako osagarri berrien ordainketa, Unibasq agentziaren konplizitatearekin. Izan ere, Unibasqek ez dizkio igorri UPV/EHUko Gizarte Kontseiluri gaur egin duen bilerarako behar zituen 279 irakasleri dagozkien C tarteen gaineko ebazpenak. Ondorioz, Unibertsitateak ezin izango ditu haiek 2018ko urtarriletik aurrera ordaindu, aurreikusita zegoen moduan, eta ordainketa 2019 arte atzeratu beharko du, soldata baxuen duten irakasle-ikertzaileen kolektiboa kaltetuz.

Gogorarazi behar dugu osagarri hauek ez direla inondik inora pribilejio bat, EHUko irakasle eta ikertzaileen soldata duintzeko bidea baizik. Ez baita ahaztu behar Unibertsitatea dela, Euskal Hezkuntza sistema publikoaren baitan, irakasle berriei soldata maila baxuena eskaintzen diena. Horregatik da, zoritxarrez, osagarri sistema hau horren garrantzitsua Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileontzat.

Iruzurra egiteko Unibertsitateko instituzio eta erabaki legitimoen gainera jarri da Eusko Jaurlaritza. Ez dute ezertarako balio izan ez EHUren Gobernu Kontseiluaren ezta Gizarte Kontseiluaren erabakiek ere. Ez dio inporta izan Unibasqen independentzia zapuztea. Eta Unibasqi ere ez zaio asko kostatu Eusko Jaurlaritzaren aurrean makurtzea. Itsusi, nagusikeriaz jokatu du Eusko Jaurlaritzak eta aitzaki modura jarri du instituzioen arteko adostasun eza, bera izan denean ados ez zegoen bakarra.

Nagusikeria ez da kudeaketa tresna demokratikoena eta modu horretan jokatzeko duenaren kontra bihur daiteke azkenean. STEILAS eta LAB sindikatuak ez gaude prest inoren nagusikeria onartzeko. Salatu egiten dugu horregatik Eusko Jaurlaritzaren jokabidea eta eskura ditugun baliabide guztiak, judizialak barne, aztertu eta erabiliko ditugu haren kontra egin eta gure eskubideak defendatzeko.